

6. ildoa: ERROTULUAK, TOLDOAK ETA IBILGAILU KOMERTZIALAK EUSKARAZ IPINTZEKO DIRULAGUNTZAK

1. NORENTZAT IZANGO DIRA DIRULAGUNTZAK

- Merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduak.
- Herriko elkarteak.
- Publizitatearen gaineko udal zerga kobratzeko Zerga Ordenantza aplikatzen zaien bestelako erakundeak, ofizialak ez direnak.
- Orokorrean, establezimendua, egoitza edo denda kalean duten eta hizkuntza paisaian eragin nabarmena duten saltokiak, bulegoak eta bestelakoak, adibidez, lanbide liberalak, autonomoak. Kanpo geratzen dira finantza erakundeak, enpresa handietako ordezkariak-bulegoak eta antzekoak.

2. ZER DA DIRUZ LAGUNDUKO DENA

Dirulaguntza honako elementu hauek jaso ahalko dute:

- Errotuluak.
- Toldoak edo olanak.
- Ibilgailu komertzialen errotulazioa.
- Establezimenduetako pertsianen errotulazioa.
- Biniloak.
- Kaleko hizkuntza paisaian eragin nabarmena duten bestelako euskarriak.

3. ZENBATEKOAK DIRA DIRULAGUNTZAK

A) Euskara hutsean	Euskara hutsez idatzita dagoen errotulazio elementu bat jartzen duenari, horren %50 ordainduko zaio, gehienez, 360 euro .
B) Ele bietan	Ele bietan , idatzita dagoen errotulazio elementu bat jartzen duenari, horren %30 , gehienez 180 euro ordainduko zaio, beti eta elebitasun pizgarriaren irizpidea erabiltzen badu, hau da, euskarazko testuak, bai tamainagatik, tokiagatik edo azpimarratuta egoteagatik, lehentasunezko trataera badu .

4. KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

4.1. A) eta B) arauak kartel edo **elementu bakoitzari** aplikatuko zaizkio. Beraz, denda batek, errotulu bat baino gehiago jarri dezake, bere fatxadak hala eskatzen badu.

4.2. **Ezin izango** dute A) eta B) ataletan azaltzen den dirulaguntzarik lortu, **bakarrik izena, edo abizena**, edo izen-abizenak dituzten errotuluek.

4.3. **Ez du dirulaguntzarik jasoko txarto idatzita** edo oker gramatikarik duen errotulurik (honelakoak gerta ez daitezen irakurri ondoren datorren 4.4. puntua).

4.4.- Udalak bere Euskara Zerbitzuaren bitartez, **itzulpengintza eta aholkularitza zerbitzua eskainiko du doan**; eta horren berri emango die interesa dutenei.

5. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

00.- Eskaera izeneko inprimakia beteta. Ikus tutorial helbide honetan: [EUSKARA IKASTEAN - YouTube](#)

01.- Faktura (Errotulua, olana, ibilgailu komertzial) euskaraz jarri dela ziurtatzeko.

02.- Argazkiak (aldatutako errotulu edo elementu(ar)en bi argazki).

03 eta 04.- ziurtagiriak. Gizarte Segurantzza, Foru Ogasunarekin eta

Getxoko Udalarekin zorrik ez izatearen ziurtagiriak. Besterik adierazi ezean, Euskara Zerbitzuak ofizioz eskatuko du. Eskatzaileak datuak eskatzearen aurka egiten badu, berak erantsi beharko du ziurtagiri hau.

.

